

MERKATUEN SEGMENTAZIOA

Gure marka, aniztasun handikoa da, hau da, adin desberdinetako pertsonentzat zuzenduta dago. Egia da, gure enpresa, bigarren eskuko denda modukoa dela, baina preziorik gabe, eta pertsona askok nahiago dute arropa berriak erostea, beraz adin desberdineko pertsona guztiak ez dute era berean gure enpresan erosiko datuen arabera.

Datuak aztertuta, jakinarazi ahal dugu zer adineko pertsona dira gehien erosten dutenak:

- 1. Gazteak, Z belaunaldia (24 urte arte):** Hauek dira beti azkenekoan daudenak, arropa erosle handiak dira eta modan dagoen arropa janzteak gustuko dute. Sare sozialen eraginez, modan dauden markak aukeratzen dute.
Talde hau oso aktiboa da bigarren eskuko arropa erosten ere.
- 2. Ingurumenarekin kezkatuta dauden pertsonak**
Ingurumen-inpaktua murriztu nahi dute eta bigarren eskuko arropa berria erostea, jasagarritasuna sustatzen du ingurumenari lagunduz.
- 3. Erdi-mailako edo behe-mailako pertsonak:**
Kalitatezko arropa behar dute, diru askorik gastatu gabe, beraz, modu bikaina da arropa erosteko edo trukatzeko.
- 4. Vintage modaren zaleak:**
Garai bateko jantziak edo dendetan ez dauden marka eksklusibokoak aurkitu daitezke.
- 5. Haur txikiak dituzten gurasoak:**
Haurrak azkar hazten dira, eta praktikoa eta merkea da baldintza onetan erabilitako arropa erostea.

Datuak aztertu eta gero, hau da bigarren arropako dendetan erosten dituzten adinak:

